

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure aplikazioak aurrera egin dezan, bezero zentzudunak eta munduan dauden kausekin benetan konprometituta daudenak beharko ditugu. Bezero mota hori Euskal Herrian aurkitzea errazagoa izango dela uste dugu, gure gizarteak duen kontzientzia mailagatik. Zehazki, gure aplikazioaren erabiltzaile nagusiak gazteak izango dira, teknologia berriak trebetasunez erabiltzen dituztenak eta ingurune digitaletan erosotasunez mugitzen direnak.

Bestalde, gure ekintza fisikoek ere segmentazio argia izango dute. Antolatuko ditugun jaialdietara euskal kultura eta zuzeneko musika maite duten pertsonak hurbilduko dira, eta bertan eskainiko dugun merchandising-a konpromiso sozial handia duten erosleek eskuratuko dute batez ere. Horrela, gure produktuak (diskoak, kamisetak edo oihalezko poltsak) ez dira osagarri hutsak izango, gure proiektuaren balio etikoekiko atxikimendu-ikurrak baizik.